

Xedapen Orokorrak

KULTURA SAILA

5607

164/2008 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Indarrean dagoen ordenamendu juridikoak euskal administrazio publikoei fundazioak eta elkarteak sustatzeko, laguntzeko eta koordinatzeko funtzioak esleitzen dizkie, administrazio publiko horien eskumenen barruan, betiere fundazioen eta elkarten helburuak aintzakotzat hartuta. Alde horretatik, alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio eta elkarteek herritarren pentsamendu politikoa, soziala eta kulturala mamitzen eta garatzen laguntzen dute, beren jardueraren bitartez.

Erakunde horiek bultzatzen dituzten jarduerak askotarikoak izan daitezke eta, beraz, jarduerok –horiek burutzeari zuzen-zuzen loturiko funtzionamendu-gastuak barne– modu generiko batez susta daitezke, halako bide espezifikoaren bitartez, nahiz eta jarduera horietako zenbait sustapen-programa jakin batzuen barruan egokitu ahal diren.

Esandako guztiagatik, beharrezkoa da prozedura orokor bat ezartzea, diru-laguntzen esparruan indarrean dagoen araudiarekin bat, erakunde horien jarduerak sustatzeko baliabideak nola banatu behar diren finkatzeko, betiere publikitate-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak bermatuta.

Ondorioz, Kultura sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2008ko irailaren 30eko bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Honako dekretu honen xedea hauxe da: Eusko Legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi politikoekiko mendekotasun organikoa duten fundazio zein elkarteentzako diru-laguntzak emateko modua arautzea.

Diru-laguntzak pentsamendu politikoa eta soziala ikertzea edo garatzea xede duten programak edo jarduerak gauzatzeko zein kultur arloko programa edo jarduera hutsak burutzeko izango dira.

2.– Dekretu honen helburua gauzatzera zuzentzen diren baliabide ekonomikoek Euskal Autonomia Erkidegoko urteroko Aurrekontu Orokorretan ondorio

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE CULTURA

5607

DECRETO 164/2008, de 30 de septiembre, por el que se regula la concesión de subvenciones a fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

El ordenamiento jurídico vigente otorga a las Administraciones Públicas vascas, en el ámbito de sus competencias, el ejercicio de las funciones de fomento, ayuda y coordinación de las fundaciones y asociaciones según la naturaleza de sus fines fundacionales y asociativos. En este sentido, las fundaciones y asociaciones con dependencia orgánica de partidos políticos contribuyen con su actividad a la formación y el desarrollo del pensamiento político, social y cultural de la ciudadanía.

La diversidad de actividades que pueden desplegar este tipo de entidades supone que, sin perjuicio de que algunas de ellas puedan ser susceptibles de ser atendidas desde diferentes programas de fomento, pueda ser promocionado con carácter genérico y a través de cauces específicos la actividad de dichas entidades así como el gasto de funcionamiento vinculado directamente con la ejecución de la misma.

Todo lo expuesto lleva a considerar la necesidad de establecer un procedimiento que, con carácter general y adecuándose a la normativa vigente en materia de subvenciones, marque las pautas para una distribución, de conformidad con los criterios de publicidad, objetividad y concurrencia, de los recursos destinados al fomento de la actividad de tales entidades.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 30 de septiembre de 2008,

DISPONGO:

Artículo 1.– Objeto.

1.– Es objeto del presente Decreto la regulación de la concesión de subvenciones destinadas a fundaciones y asociaciones dependientes orgánicamente de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco.

Las subvenciones tendrán como objeto la realización de programas o actividades ya sean de estudio y desarrollo del pensamiento político y social ya sean de ámbito cultural.

2.– Los recursos económicos destinados a la finalidad del presente Decreto procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto

horietarako ezarritako bidezko aurrekontu-kredituetan izango dute jatorria. Kreditu horiek gehitu ahal izango dira lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

2. artikulua.— Entitate onuradunak.

1.— Honako dekretu honek finkatzen dituen diru-laguntzak Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politikoei mendeotasun organikoa duten fundazio zein elkarteek jaso ahal izango dituzte, baldin eta euren interes orokorreko helburuen artean kultur jarduerak garatzea bada eta, azkenik, hurrengo artikulua aipatzen dituen jardueretako bat edo gehiago garatzen badute.

Lurralde-esparruari dagokionez, honako dekretu honetara aurkeztuko diren programak edo jarduerak Euskal Autonomia Erkidegoan bertan garatu beharko dira edo, besterik ezean, bertatik landa, baldin eta euren xede nagusia euskal pentsamendu politikoa eta soziala zein euskal kulturaren edozein adierazpen sustatzea bada.

2.— Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra edo erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman izana dela eta horiek itzultzeko edo zehatzeko prozeduraren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozedura hori amaitu egin beharko da onuradunei diru-laguntzak edo laguntzak eman eta ordaindu ahal izateko.

3.— Eusko Legebiltzarrean ordezkariak duten alderdi politiko berarekiko mendeotasun organikoa izan ditzaketen entitateen kasuan, horietako bakar bat baino ezingo da bildu deialdi honetara.

4.— Laguntza-deialdi honetara ezin izango dira aurkeztu sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko zehapen administratibo edo penala jasotako entitateak, ez eta otsailaren 18ko 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela bide debeku horrekin zigortutakoak ere, betiere kasuan kasuko zehapenak ezarritako epean.

3. artikulua.— Laguntzagai diren programa edo jarduerak, diruz lagundu ezin daitezkeen gastuak eta baztertutako programak edo jarduerak.

1.— Pentsamendu politikoa eta soziala ikertzea edo garatzea xede duten programak edo jarduerak zein kultur arloko programa edo jardura hutsak laguntzagai izan ahalko dira.

Diruz lagundutako programak edo jarduerak burutzeari zuzen eta estu loturiko funtzionamendu-gastuen finantziaketa ere hartuko ditu bere baitan kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoak.

2.— Nolanahi ere, jarduerok kasuan kasuko aurrekontu-ekitaldiaren barnean gauzatu beharko dira.

en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco de cada año, créditos que podrán ser incrementados de conformidad a lo dispuesto en la disposición adicional primera.

Artículo 2.— Entidades beneficiarias.

1.— Podrán ser beneficiarias de las subvenciones reguladas por el presente Decreto las fundaciones y asociaciones que sean dependientes orgánicamente de partidos políticos con representación en el Parlamento Vasco, que tengan entre sus fines de interés general el desarrollo de programas o actividades culturales y que desarrollen alguna de las actividades que se mencionan en el artículo siguiente.

Con relación al ámbito territorial, los programas o actividades que se presenten al amparo del presente Decreto deberán desarrollarse en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco o, en su defecto, fuera de éste, siempre y cuando el objeto de aquéllos sea la difusión exterior tanto del pensamiento político y social vasco como la de la cultura vasca en cualquiera de sus vertientes.

2.— La concesión y, en su caso, el pago de la subvención a la entidad beneficiaria quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.— No podrá concurrir a las ayudas reguladas por este Decreto más de una entidad con dependencia orgánica de un mismo partido político con representación en el Parlamento Vasco.

4.— No podrán acceder a las ayudas reguladas en el presente Decreto las entidades que se encuentren sancionadas penal o administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o se hallen incurso en alguna prohibición legal que les inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

Artículo 3.— Programas o actividades objeto de subvención, gastos no subvencionables y programas o actividades excluidos.

1.— Podrán ser objeto de subvención la realización de programas o actividades ya sean de estudio y desarrollo del pensamiento político y social o ya sean culturales.

El importe de las subvenciones incluirá la financiación de los gastos de funcionamiento directamente vinculados a la ejecución de los programas o actividades subvencionados.

2.— En todo caso, se tratará de programas o actividades que se ejecuten dentro del ejercicio presupuestario que corresponda en cada caso.

3.– Orokorki, jarraian aipatzen diren gastuak ezingo dira diruz lagundu:

a) Higiezinetan egindako edozein eratako obrek sortarazitakoak.

b) Ekipamenduetan egindakoak –makineriaren, altzarien, informatika ekipoen, zein garraio-elementuen erosketa– eta, orokorki, entitate onuradunaren ondasuna gehitu dezaketen bestelakoak.

c) Amortizazio-gastuak.

d) Zerga-gastuak.

e) Irakasleen, hizlarien zein txostengileen ordainsari profesionalak, betiere diru-jasotzailea lagundutako fundazio zein elkarte onuradunaren zuzendaritzako kidea denean.

4.– Protokolo- eta ordezkatzeko-gastuak ontzat eman ahal izateko, diru-laguntzaren xede duen jarduerarekiko erlazio zuzen-zuzena egiaztatzea nahitaezko baldintza da eta, inola ere, ezingo dira esleitutako diru-laguntzaren % 5etik gorakoak izan.

5.– Halaber, jarraian azaltzen diren programak edo jarduerak ere dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira:

a) Aurrekontuari begira, honako zirkunstantzia honen bat datozenak:

$$[(I-SC) \times 100]/G < 30$$

non,

I = guztizko diru-sarrerak.

SC = kultura Sailari eskatutako diru-kopurua.

G = guztizko diru-irteerak.

Hots, % 30etik beherako finantziazio-maila dute-nak. Dekretu honi begira, hona zer ulertzen den finantziazio-mailatzat: kasuan kasuko entitate eskatzailearen diru-ekarpenaz gain, horrek iturri publiko zein pribatu-etatik ere eskuratzea aurreikusten duena, honako dekretu honen babesean Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailari eskatzen zaion diru-kopurua kanpo geratzen delarik.

b) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea beterik, sexu bien arteko trataera berdintasuna bermatzen ez dutenak.

4. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzeko organoa.

Dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzak kudeatzeko ardura Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzarena izango da.

5. artikulua.– Eskabideak.

Dekretu honetan arautzen diren diru-laguntzetara biltzeko deialdia urtean urteko ekitaldi ekonomikoan egin eta jakinaraziko da, Kultura sailburuaren agindu

3.– No serán subvencionables, con carácter general, los siguientes gastos:

a) La realización de todo tipo de obras en inmuebles.

b) Gastos realizados en equipamiento, tales como la adquisición de maquinaria, mobiliario, equipos informáticos, elementos de transporte y, en general, cualesquiera otros que incrementen el patrimonio de la entidad beneficiaria.

c) Gastos de amortización.

d) Impuestos y gastos por tributos.

e) Honorarios profesionales de profesores/as, conferenciantes y ponentes, cuando el/la perceptor/a de los mismos sea miembro de la directiva de la asociación o fundación beneficiaria de la subvención.

4.– Los gastos protocolarios y de representación estarán supeditados a su inexcusable relación con el programa o actividad objeto de la ayuda y en ningún caso podrán superar el 5% de la ayuda concedida.

5.– Así mismo, quedan excluidas del ámbito de aplicación del presente Decreto las siguientes actividades o programas:

a) Aquéllas en las que con relación al presupuesto se dé la circunstancia siguiente:

$$[(I-SC) \times 100]/G < 30$$

siendo,

I = Total de ingresos.

SC = Importe solicitado al Departamento de Cultura.

G = Total de gastos.

Es decir, aquéllas que cuenten con un nivel de financiación inferior al 30%. Se entiende por financiación la que, además de la proveniente de la entidad solicitante, la que esta última prevea obtener de distintas fuentes, públicas o privadas, excluida de dicho cómputo la aportación que se solicite al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco.

b) Aquéllas que, en cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, no garanticen la igualdad de trato entre los dos sexos.

Artículo 4.– Órgano de gestión de las ayudas.

Corresponderá a la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura la realización de las tareas de gestión de las subvenciones que se regulan en el presente Decreto.

Artículo 5.– Solicitudes.

Anualmente, mediante Orden de la Consejera de Cultura, se efectuará la correspondiente convocatoria para acogerse a las ayudas reguladas en el presente De-

bidez. Deialdi honetan honako gai hauek zehaztuko dira:

- a) Konbokaturiko diru-laguntzak finantzatzeko aurrekontuko zuzkidura.
- b) Aurkeztutako programak edo jarduerak burutze epea.
- c) Eskabideak aurkezteko tokia eta epea.
- d) Entitate eskatzaile orok aurkeztu beharreko dokumentazioa.
- e) Kasuan kasu esleitutako diru-laguntza justifikatzeko epea eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

6. artikulua.– Aurkeztutako eskabideetan akatsak zuzentzea.

1.– Zerbitzu Zuzendaritza kasuan kasuko eskabideak akatsen bat duela edo osatugabea dela ohartuz gero, zuzendaritzak berak eskabidea egin duen entitate interesdunari akatsa zuzen dezala edota falta den dokumentazioa bidal dezala eskatuko dio idatziz, eta horretarako hamar eguneko epea emango dio. Horretaz gain, eskaera egin duen entitate interesdunari igortzen zaion jakinarazpen-idatzian honako hau ere adieraziko zaio: eskatutakoa ezarritako epean aurkeztu ezik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. eta 71. artikuluetan ezarritakoaren arabera dagokion ebazpena eman ondoren, entitate interesdunak eskabidearen tramitazioan atzera egin duela ulertuko dela.

2.– Atzera egin izanaren berariazko ebazpena aurreko puntuan adierazitako epea bukatzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epean jakinaraziko zaio entitate interesdunari.

7. artikulua.– Diru-laguntzak emateko eta banakako kopuruak zehazteko prozedura.

1.– Dekretu honek ezartzen dituen diru-laguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da. Horretarako, hots, eskariak hurrenkera jakin batean jartzeko, aurkeztutako eskabide guztiak elkarrekin alderatuko dira, baina betiere 9. artikuluan ezarritako balorazio-irizpideak kontuan harturik.

2.– Kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa finantzatzeko, deialdiarentzat izendatutako gehieneko diru kopurua ontzat emandako eskabideen artean modu zuzenki proportzionalen banatuko du balorazio-batzordeak. Aipatutako diru-banaketa kasuan kasu lortutako puntuazioaren eta eskatutako diru kopuruaren arabera egingo da, horretarako honako formula hau erabiliz:

$$S_i = (E_i \times P_i) / 100$$

non,

S_i = programa edo jardueretako bakoitzari dagokion behin betiko diru-laguntzaren zenbatekoa.

creto. En esta convocatoria se concretarán las siguientes cuestiones:

- a) La dotación presupuestaria global destinada a financiar las ayudas convocadas.
- b) El plazo de ejecución de los programas o actividades presentadas.
- c) El lugar y los plazos para la presentación de las solicitudes.
- d) La documentación a aportar por las entidades solicitantes de las ayudas.
- e) El plazo y la documentación a aportar para la justificación de la ayuda concedida.

Artículo 6.– Subsanación de defectos en las solicitudes presentadas.

1.– Si la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura advirtiera en la(s) solicitud(es) presentada(s) la existencia de algún defecto u omisión, requerirá por escrito a la(s) entidad(es) para que en un plazo de diez días subsane(n) la falta o acompañe(n) los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera(n), se le(s) tendrá por desistida(s) de su petición, previa resolución emitida al efecto, de conformidad con los artículos 42 y 71 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– La resolución expresa de desistimiento se notificará en el plazo máximo de un mes contado a partir del día siguiente al de la finalización del plazo de diez días mencionado en el apartado anterior.

Artículo 7.– Procedimiento de concesión y determinación de la cuantía de las subvenciones.

1.– Las ayudas reguladas por el presente Decreto se resolverán por el procedimiento de concurso. A estos efectos, la concesión se realizará mediante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas atendiendo a los criterios de valoración recogidos en el artículo 9.

2.– Para la determinación del importe de la subvención en cada caso, la Comisión de Valoración procederá al prorrateo del importe global máximo que se destine para el ejercicio presupuestario que corresponda en cada caso entre las solicitudes admitidas. El mencionado prorrateo se realizará en función de la puntuación obtenida y el importe solicitado en cada caso, utilizándose para ello la fórmula siguiente:

$$S_i = (E_i \times P_i) / 100$$

siendo,

S_i = importe definitivo de la subvención correspondiente a cada programa o actividad.

E_i = kasuan kasu eskatutako diru-laguntzaren zenbakekoa.

P_i = batzordeak programa edo jardueretako bakoitzari emandako puntuazioa.

3.– Aurreko atalean esandako moduan kalkulaturako diru-laguntzen baturak aurrekontuaren muga gainditzeko, kasuan kasu eman beharreko diru-kopurua honela kalkulatu da:

$$S'_i = D \times \frac{S_i}{\sum_{i=1}^n S_i}$$

non,

S_i = aurreko formularen arabera programa edo jardueretako bakoitzari dagokion behin-behineko diru-laguntzaren zenbakekoa.

S'_i = programa edo jardueretako bakoitzari dagokion behin betiko diru-laguntzaren zenbakekoa.

D = diruz lagundutako programa edo jardueren artean banatu beharreko zenbakekoa.

8. artikulua.– Balorazio-batzordea.

1.– Aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatze-ko, balorazio-batzorde bat osatuko da jarraian azaltzen den moduan:

a) Kultura Saileko Zerbitzu zuzendaria, batzordebua izango dena.

b) Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria edo, horren ordez, erakunde autonomiadun bereko teknikari bat, zuzendariak izendatua.

c) Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlan eta Lege Araubide zuzendaria edo, horren ordez, zuzendaritza bereko teknikari bat, zuzendariak izendatua.

d) Kultura Sustatzeko zuzendaria edo, horren ordez, zuzendaritza bereko teknikari bat, zuzendariak izendatua.

e) Zerbitzu Zuzendaritzako teknikari bat, zuzendariak izendatua. Idazkaritza lanetan jardungo duen teknikari honek hitza izango du baina botorik ez.

2.– Lehenengo bilera egin aurretik, batzordea osatzen duten kideen izendapena jendaurrean jakinaraziko da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Zerbitzu zuzendariaren ebazpen baten bidez. Hartara, entitate interesatu orok Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 29. artikuluan jasotako eskubideak erabili ahalko ditu.

E_i = importe de la subvención solicitada en cada caso.

P_i = puntuación otorgada por la Comisión a cada programa o actividad.

3.– En el supuesto de que la suma de los importes de las subvenciones calculadas mediante el procedimiento mencionado en el apartado anterior excediera el límite presupuestario, el importe de la subvención a conceder en cada caso vendría determinado por la fórmula siguiente:

$$S'_i = D \times \frac{S_i}{\sum_{i=1}^n S_i}$$

siendo,

S_i = importe inicial de la subvención correspondiente a cada programa o actividad, calculado en función de la fórmula anterior.

S'_i = importe definitivo de la subvención correspondiente a cada programa o actividad.

D = importe a repartir entre todos los programas o actividades objeto de subvención.

Artículo 8.– Comisión de Valoración.

1.– Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración integrada por los siguientes miembros:

a) El Director/la Directora de Servicios del Departamento de Cultura, que presidirá la Comisión.

b) El Director/la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública o, en su defecto, un/una técnico del mismo organismo autónomo designado/a por aquél.

c) El Director/la Directora de Estudios y Régimen Jurídico del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social o, en su defecto, un/una técnico de la misma dirección designado/a por aquél.

d) El Director/la Directora de Promoción de la Cultura o, en su defecto, un/una técnico/a de la misma dirección designado/a por aquél.

e) Un/una técnico de la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura, designado por el Director/la Directora de la misma, que actuará como secretario/a, con voz pero sin voto.

2.– A fin de que cualquier entidad interesada pueda ejercer las facultades reconocidas en el artículo 29 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, mediante Resolución de la Directora de Servicios que se insertará en el Boletín Oficial del País Vasco se hará pública la composición efectiva de esta comisión con carácter previo a su primera reunión.

3.— Berariaz prestatutako ebazpen-proposamena egingo dio Batzordeak Kultura sailburuari, eskabideak aurkezteko epea bukatu eta handik hiru hilabeteko epean. Proposamen horrek honako aspektu hauek zehaztuko ditu:

a) Entitate onuradunen zerrenda, diruz lagundutako programak edo jarduerak eta kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa.

b) Diru-laguntzarik jasoko ez duten entitateen zerrenda, ezetsitako programak edo jarduerak eta kasuan kasuko arrazoia.

9. artikulua.— Balorazio-irizpideak zein azpi-irizpideak.

Ebazpen-proposamena egiteko, balorazio-batzordeak honako (azpi-)irizpide hauek hartuko ditu kontuan:

a) Kasuan kasuko aurrekontu-ekitaldiarekiko Eusko Legebiltzarrerako aurre-aurreko azken hauteskundeetan lortutako ordezkartza (% 50).

Puntuazioa honako formula hau baliatuta aterako da:

$$P_i = (\text{aulki kopuruai} \times 50) / E$$

non,

P_i : Entitate onuradunetako bakoitzak ateratako puntuazioa.

Aulki kopuruai: Kasuan kasuko fundazioa zein elkarte atxikita dagoen alderdi politikoak duen aulki kopurua.

50: Gehieneko puntuazioa.

E: Legebiltzarrean gehiengo ordezkapena duen alderdi politikoaren aulki-kopurua.

b) Pentsamendu politikoaren eta sozialaren ikuspegiak zein kulturalarenetik programak edota jarduerak duen interesa, hala nola entitatearen ibilbidea, gizartearen txertatze-maila eta hizkuntza politika (% 30).

b.1.— Programaren edo jardueraren interesa eta garrantzia (20 puntu).

b.2.— Entitatearen ibilbidea, gizartearen txertatze-maila eta hizkuntza politika (10 puntu).

c) Programaren edo jardueraren autofinantziazioa (% 10). % 90eko autofinantziazioak edo handiagoak gehieneko puntuazioa lortzea merezi dutela oinarritzat harturik, kasuan kasuko puntuazioa kalkulatzeko honako formula hau erabiliko da:

$$A_i (\%) = \{[(I_i - SC_i) \times 100] / G_i\} / 9$$

non,

A_i = kasuan kasuko autofinantziazioa, %tan adierazita.

I_i = kasuan kasuko guztizko diru-sarrerak (Kultura Sailari eskatutako diru kopuruaren zenbatekoa barne),

3.— La Comisión de Valoración elevará la oportuna Propuesta de Resolución a la Consejera de Cultura en el plazo máximo de tres meses, a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes. La propuesta determinará:

a) La relación de entidades beneficiarias, los programas o actividades objeto de subvención y la cuantía a otorgar a cada una de ellas.

b) La relación de entidades no beneficiarias, los programas o actividades cuyas solicitudes de subvención han sido denegadas y el motivo de denegación en cada caso.

Artículo 9.— Criterios y subcriterios de valoración.

Al objeto de elaborar la Propuesta de Resolución, la Comisión de Valoración tendrá en cuenta los siguientes (sub)criterios:

a) La representación obtenida en las inmediatamente últimas elecciones al Parlamento Vasco con relación al ejercicio presupuestario que corresponda en cada caso (50%).

La puntuación se calculará mediante la siguiente fórmula:

$$P_i = (N.º \text{ escañosi} \times 50) / E$$

siendo,

P_i : Puntuación correspondiente a cada entidad beneficiaria.

N.º escañosi: N.º de escaños que posee el partido político al que se encuentra vinculada cada fundación o asociación.

50: Puntuación máxima.

E: N.º de escaños que posee el partido político con mayor representación parlamentaria.

b) El interés del programa o actividad desde tanto el punto de vista del desarrollo del pensamiento político y social como desde el cultural así como la trayectoria, implantación social y política lingüística de la entidad (30%).

b.1.— Interés y alcance del programa o actividad (20 puntos).

b.2.— Trayectoria, implantación social y política lingüística de la entidad (10 puntos).

c) La autofinanciación del programa o actividad (10%). Para el cálculo de la misma (partiendo de la base de que un porcentaje de autofinanciación igual o superior al 90% se considera como merecedor de la puntuación máxima) se utilizará la fórmula siguiente:

$$A_i (\%) = \{[(I_i - SC_i) \times 100] / G_i\} / 9$$

siendo,

A_i : Autofinanciación en cada caso, expresada en %.

I_i = Total de ingresos en cada caso (incluido el importe solicitado al Departamento de Cultura), excep-

administrazio publikoetatik eskuratutakoak kanpoan utzita, hau da, entitate eskatzailearen ekarpena, balizko salmentengatik-edo lortutako diru-sarrerak, gehi, hala badagokio, entitate pribatuek egindako ekarpenak edota dohaintzak, ea.

SC_i = kasuan kasu Kultura Sailari eskatutako diru-kopurua.

G_i = kasuan kasuko guztizko diru-irteerak.

d) Programaren edo jardueraren balizko onuradunak, zuzenak zein zeharkakoak, eta horien lurralde-eragina (% 10).

d.1.– Balorazio zuzena (5 puntu).

d.2.– Zeharkako balorazioa-web orria (5 puntu).

10. artikulua.– Beste diru-laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Dekretu honek araututako diru-laguntzak eta helburu berberaz entitate onuradunei esleitu dakizkiekeen beste batzuk bateragarriak izango dira, baldin eta gain-finantzaziorik ez badago. Kasu horretan, behar diren neurriak hartuko dira emandako diru-laguntza dagokion diru kopurura murrizteko.

11. artikulua.– Ebazpena.

1.– Balorazio-batzordeak egindako proposamenaren argitan, Kultura sailburuak dagokion ebazpena emango du.

2.– Prozeduraren ebazpena jakinarazteko gehieneko epea bost hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunetik. Epea igaro eta entitate interesdunek ebazpenaren jakinarazpen-idazkirik jaso ezik, eskabidea(k) ezetsi d(ir)ela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan aurreikusi bezala, nahiz eta horrek ez salbuetsi aipatu legeak Administrazioari ebazpen adierazia emateko ezartzen dion betekizunetik.

3.– Ebazpena entitate interesdun orori jakinarazteaz gain, entitate onuradunak, diru-laguntza jaso duten programak edo jarduerak eta, azkenik, kasuan kasuko diru-laguntzaren zenbatekoa ere publiko egingo dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian –Zerbitzu zuzendariaren ebazpen baten bidez–, jendeak horien berri izan dezan.

12. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Dekretu honek araututako diru-laguntzen entitate onuradunek honako betebeharrak bete behar dituzte:

a) Esleitutako diru-laguntza onartzea. Horretarako, laguntza onartzen duela adierazteko hamabost egun baliaduneko epea izango du, esleitutako diru-laguntzaren berri ematen duen jakinarazpen-idazkia jasotzen duen

tuando aquéllos procedentes de las administraciones públicas, esto es, aportación de la entidad solicitante, ingresos por posibles ventas, más, en su caso, aportaciones y/o donaciones de otras entidades privadas, etc.

SC_i = Importe solicitado en cada caso al Departamento de Cultura.

G_i = Total de gastos en cada caso.

d) El potencial número de beneficiarios/as, directos/as e indirecto/as del programa o actividad y la repercusión territorial del mismo (10%).

d.1.– Valoración directa (5 puntos).

d.2.– Valoración indirecta-Página web (5 puntos).

Artículo 10.– Compatibilidad con otras subvenciones o ayudas.

Las subvenciones reguladas en el presente Decreto serán compatibles con cualquiera otra que pudiera ser otorgada a las entidades beneficiarias para el mismo objeto, siempre y cuando no exista sobrefinanciación. En tal caso, se adoptarán las medidas pertinentes para reducir la subvención otorgada en la cantidad que proceda hasta suprimir tal circunstancia.

Artículo 11.– Resolución.

1.– La Consejera de Cultura, a la vista de la propuesta formulada por la Comisión de Valoración, dictará la correspondiente resolución.

2.– El plazo máximo para la notificación de la resolución del procedimiento será de cinco meses, a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido el plazo máximo sin que se haya notificado la resolución, las entidades interesadas podrán considerar desestimada(s) su(s) solicitud(es) a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación que dicha ley impone a la Administración de resolver expresamente.

3.– La resolución se notificará a todas las entidades interesadas y, asimismo, mediante Resolución de la Directora de Servicios, se publicarán, a efectos de general conocimiento, en el Boletín Oficial del País Vasco las entidades beneficiarias, los programas o actividades subvencionados, así como el importe de las subvenciones concedidas.

Artículo 12.– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Las entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en el presente Decreto deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las entidades beneficiarias no renuncian

egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan adierazpenik egin ezik, laguntza onartzen duela ulertuko da, horrek dakartzan eskubide eta betebeharrak guztiekin.

b) Diru-laguntza jasotako programak edo jarduerak burutzea aurreikusitako exekuzio-, justifikazio-epaia eta baita programetatik edo jardueretatik eratorzen diren xehetasunak ere betetz.

c) Esleitutako diru-laguntza programaren edo jardueraren exekuzioak sortarazitako gastuei aurre egiteko erabiltzea, diru-laguntza jasotzeko aurkeztu den aurrekontuan ezarritakoaren arabera.

d) Egiaztatze-jarduerari men egitea, eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta, azkenik, Herri Kontuen Euskal Epaitegiari diru-laguntzen zertarakoen fiskalizazio-lanetan behar duten informazio guztia ematea.

e) Diru-laguntzak esleitzerakoan exijitutako eta kontuan izandako betekizunen bati eragin diezaioketen gorabeheren gaineko aldaketarik egonez gero, horren berri ematea Zerbitzu Zuzendaritzari.

f) Xede berbera izanik, bestelako administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatuetatik jasotako diru-laguntzen edo laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen berri ematea Zerbitzu Zuzendaritzari.

g) Diruz lagundutako programa edo jardura promozionatzeko egindako testu, dokumentu eta antzeko elementuetan, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dela adierazten duen aipamena egitea. Aipamen hori euskaraz egin beharko da edo, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofiziale-tan.

Nolanahi ere, konpromiso hori ez dute bete beharko programa edo jardura burutu ondoren diru-laguntza-ren baten onuradunak direla adierazten duen jakinarazpen-idazkia jasoko duten entitateek.

h) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, diruz lagundutako programa edo jardueraren exekuzio-aldian hizkera ez-sexista erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera ez-estereotipatua egitea.

i) Ordenamendu juridikoak eta, bereziki, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak ezartzen duen beste edozein.

13. artikulua.— Diru-laguntzaren ordainketa.

1.— Esleitutako diru-laguntzak bi zatitan ordainduko dira, honako prozedura honi jarraituz:

expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) Realizar los programas o actividades para las que haya obtenido la subvención, cumpliendo los plazos de ejecución y justificación previstos y cuantos otros extremos se deriven de su realización.

c) Destinar la subvención otorgada a sufragar los gastos derivados de la realización de los programas o actividades, conforme al presupuesto presentado para el reconocimiento de la subvención.

d) Someterse a las actuaciones de comprobación y facilitar al Departamento de Cultura, a la Oficina de Control Económico del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas cuanta información le sea requerida en el ejercicio de sus funciones de fiscalización del destino de las subvenciones.

e) Comunicar a la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura la modificación de cualquier circunstancia que afecte a alguno de los requisitos exigidos y tenidos en cuenta para la concesión de las subvenciones.

f) Comunicar a la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedente de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

g) Incorporar en los elementos de promoción y textos o documentos que se elaboren con ocasión del programa o actividad subvencionado la mención al patrocinio del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. Dicha mención al patrocinio deberá figurar en euskera o, en su defecto, en las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Este compromiso no afecta a aquellas entidades beneficiarias que recibieran la notificación de concesión de subvención con posterioridad a la realización del programa o actividad.

h) En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, las entidades beneficiarias adquieren el compromiso de no utilizar lenguaje sexista en el desarrollo y ejecución de los programas o actividades subvencionados y, así mismo, garantizarán que no haya usos estereotipados en relación a los roles de mujeres y hombres.

i) Cualquier otra legalmente establecida por el ordenamiento jurídico y, en particular, por el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

Artículo 13.— Pago de la subvención.

1.— Las subvenciones concedidas se abonarán en dos pagos, de acuerdo al siguiente procedimiento:

a) Lehenengoan diru-laguntza osoaren ehuneko hirurogeita hamabosta (% 75) ordainduko da, diru-laguntza jasotzea onartzen den egunetik hasi eta hilabeteke epean.

b) Bigarrenean, hala badagokio, gainerako kopurua ordainduko da, diru-laguntza zuritzeko dokumentazioa behin aurkeztuz gero.

2.- Salbuespen gisa, diru-laguntza osoa batera ordaindu ahal izango da baldin eta, batetik, diruz lagundutako programa edo jarduera burututa badago eta, bestetik, entitate onuradunak programa edo jarduera behar bezala justifikatzeko dokumentazioa bidali badu.

14. artikulua.– Diru-laguntzaren kitapena.

1.– Diru-laguntzaren xedea betea izanik, hura esleitzeko kontuan izandako edozein baldintza aldatzeak, eta, edozein kasutan, bestelako herri administrazioen edo entitate publiko zein pribatuaren diru-laguntzak metaketa bidez eskuratzeko diru-laguntzen esleipen-erabakia aldatzea ekarri ahal izango du.

2.– Diru-laguntza justifikatzeko bidalitako dokumentazioa aztertu ondoren, dena delako arrazoiarengatik bigarren zatia ordainketa gutxitu behar izatekotan edo hura ezeztatutako behar izatekotan, eta, hala badagokio, jasotzeko, osorik nahiz haren zati bat, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar izanez gero, Kultura sailburuak kitapen-ebazpen individualizatua emango du egiaztagiria aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasi eta bi hilabeteke epean. Halaber, hala badagokio, diru itzulketa egin ahal izateko bi hilabeteke epea emango du ebazpenaren jakinarazpen-idatzia jasotzen denetik.

3.– Eskabidearekin batera aurkeztutako hasierako gastu-aurrekontua baino handiagokoa justifikatzeak ez dakar, inola ere, esleitutako behin-behineko diru-laguntzaren zenbatekoa gehitzeko eskubiderik.

15. artikulua.– Ez-betetzeak.

1.– Honako hauek joko dira ez-betetzetzat:

a) Esleitutako diru-laguntza ez justifikatzea, horretarako ezarritako alean.

b) Laguntza jasotzea horretarako ezinbestekoak diren baldintzak bete gabe.

c) Jasotako diru-laguntza osoa edo haren zati bat lagundutako programak edo jarduerak ez diren bestelakoetarako erabiltzea.

d) Kitapen-ebazpenak diru kopuru jakin bat itzuli behar izatea ekarri gero, diru-kopuru hori horretarako ezarritako epean ez itzultzea.

e) Kultura Sailaren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren edo Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrol-lanari uko gitea edo oztopatzea.

a) Un primer pago por un setenta y cinco por ciento del total, en el plazo de un mes contado a partir de la fecha de aceptación de la subvención.

b) Un segundo pago por la cantidad restante, si así correspondiera, tras la justificación de la subvención.

2.– Excepcionalmente podrá efectuarse el pago en un único libramiento cuando se subvencionen programas o actividades ya realizados y se remita por la entidad beneficiaria la documentación justificativa de la subvención.

Artículo 14.– Liquidación de la subvención.

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta y, en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones.

2.– Cuando analizada la documentación remitida a los efectos de justificación de la subvención procediera, por el motivo que fuera, la minoración del segundo abono de la misma o la anulación total del mismo y, en su caso, la obligación de reintegro a la Tesorería General del País Vasco de la totalidad o parte de lo ya percibido, por la Consejera de Cultura se dictará, en el plazo de dos meses contado a partir de la finalización del plazo de presentación de justificantes, Resolución de Liquidación individualizada, otorgando, en su caso, un plazo de dos meses desde la recepción de la misma para proceder al reintegro correspondiente.

3.– Bajo ninguna circunstancia la justificación de gastos superior al presupuesto de gastos inicialmente presentado dará derecho a incremento alguno en la subvención inicialmente reconocida.

Artículo 15.– Incumplimientos.

1.– Constituirán supuestos de incumplimiento:

a) La no justificación de la subvención concedida, en el plazo para ello establecido.

b) Obtener la subvención sin reunir las condiciones requeridas para ello.

c) La aplicación total o parcial de la subvención percibida para la realización de programas o actividades distintos a las inicialmente subvencionadas.

d) La no devolución de la cuantía que, en su caso, se señale en la Resolución de Liquidación, en el plazo para ello establecido.

e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control del Departamento de Cultura, de la Oficina de Control Económico y del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.

f) Dekretu honetan ezarritako betebeharrak edo bestelako xedapenek izaera orokorrezt betetzeko ezartzen duten beste edozein betebeharrak ez betetzea.

2.— Artikulu honen aurreko paragrafoan ez-betetzat jotako suposamenduren bat gertatzen dela egiaztatzen bada, ezin izango zaio exijitu Kultura Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari diru-laguntza ordaintzea eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak eta kasuan kasu dagozkion interes legalak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan adierazitakoa betez eta horretarako ezartzen den prozedurari jarraituz.

3.— Aurreko paragrafoan adierazitako itzulketaz gainera, balizko zigor-prozedura ireki daiteke ikusten bada Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren laguntza eta diru-laguntzei buruzko xedapenak urratu direla, lehen aipaturiko azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan xedatutakoaren arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.— 1. artikulua 2. atalean izendatutako guztizko diru-zenbatekoa aldatu ahal izango da eskatutako laguntza guztien zenbatekoa kontuan izanda eta eskabideak ebatzi aurretik, Kultura Sailean beste egitarau batzuk egin ondoren ahitu gabe geratutako aurrekontuko diru erabilgarriaren arabera. Aipatutakoaren berri eman beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Kultura sailburuaren ebazpen baten bitartez.

Bigarrena.— Dekretu honen ondorioz, herri administrazioarekin dituzten harremanetan, pertsona fisiko eta juridikoek euskara eta gaztelania, ahoz zein idatziz, erabiltzeko eta arreta hizkuntza berean jasotzeko duten eskubidea bermatuko da.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Diru-laguntzen arloari dagokionez dekretu honetan biltzen ez diren alderdi guztietan Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegilean ezartzen denari jarraituko zaio eta, bestalde, prozedurari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da.

Bigarrena.— Dekretu honen aurka, interesdunek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezarri ahal izango diote Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Sailari dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik bi hilabeteko epean.

f) La falta de cumplimiento de las obligaciones establecidas en el presente Decreto, así como la de cualquier otra que sea de obligado cumplimiento por así establecerlo con carácter general cualquier otra disposición.

2.— La constatación de la existencia de alguno de estos supuestos determinará, en los términos y previo cumplimiento de lo previsto en el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, que no será exigible a la Dirección de Servicios del Departamento de Cultura el abono de la subvención, y en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que procedan.

3.— El cumplimiento del deber de reintegro señalado en el párrafo anterior no supondrá exoneración de las consecuencias que pudieran derivarse del eventual procedimiento sancionador que pudiera seguirse contra la entidad infractora de las disposiciones relativas al régimen de ayudas y subvenciones otorgadas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conforme a lo previsto en el precitado Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.— A la vista de la cuantía total de las ayudas solicitadas, el crédito al que alude el apartado 2 del artículo 1 podrá ser modificado en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De dicha circunstancia se dará publicidad mediante Orden de la Consejera de Cultura que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.— Las personas físicas y jurídicas que, como consecuencia de este Decreto, tengan relación con la administración pública tienen garantizado el derecho a usar tanto el euskera como el castellano, oralmente y/o por escrito, así como el de ser atendidas en la lengua oficial que elijan.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— En lo no previsto en el presente Decreto en materia subvencional será de aplicación el Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y, en materia de procedimiento, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Segunda.— Contra el presente Decreto podrán los/los interesados/as interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de dicha Jurisdicción del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

Hirugarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2008ko irailaren 30ean.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,

MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

Tercera.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 30 de septiembre de 2008.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,

MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.